

Nola erabili behar da preserbatibo maskulinoa edo kanpoan jartzekoa?

Gorde kondoiak toki lehorrean, giro-tenperatura (tenperatura oso baxuek edo oso altuek kalte egiten ahal diete), eguzkiaren argiak zuzenean jotzen ez duela. Ez gorde


poltsikoan, kotxean, motoan edo diru-zorroan denbora luzez (hilabete baino gehiago), hezetasunak eta gehiegizko beroak kalte egiten ahal dietelako.

1 Iraungitze



Egiaztatu preserbatiboa egoera onean dagoela eta ez iraungita.

2 Irekitzean




Ireki ezazu kontuz (ez erabili hortzak edo guraizeak).

3 Posizio



Egiaztatu preserbatiboa posizio zuzenean duzula ikusita zer aldetara hedatzen den. Preserbatiboa bilgarritik oso bizkor ateratzen baduzu, batzuetan depositua kontrako aldera geratzen da begira. Horregatik komenigarria da hori egiaztatzea preserbatiboa jarri baino lehen.

4 Aire




Jartzen duzunean, beharrezkoa da depositu hori estutzea segurtatzeko ez dela barruan airerik geratzen.

5 Eraikuntzan



Hedatu preserbatiboa zaskilean zehar. Ezinbestekoa da zakila tente dagoenean jartzea preserbatiboa. Eta koitoa baino lehen ipintzea.

6 Erauzketa



Koitozko jardun sexualetan aritu bitartean, komenigarria da preserbatiboa ongi jarrita dagoela egiaztatzea. Eiakulatu ondoren, preserbatiboa arreta handiarekin atera behar da. Zakilarekin preserbatiboari eutsi behar diozu kentzen duzunean, bermatzeko hazia kondoiaren barruan geratzen dela eta ez baginaren eta/edo uzkiaren barruan.

7 Ondoren



Preserbatiboari korapiloa egiten badiozu, hazia barruan geratuko da. Gero garrantzitsua da zakila garbitzea, geratzen den hazia kentzeko.

8 Ezabatzea



Preserbatiboa paperontzira botatzen da. Inoiz ez komunera.

Ten en cuenta que

1. Preserbatiboaren kanpoan eta barruan erabili dezakezu lubrifikatzailea, baina, barruan gehiegi ipintzen baduzu, kondoa zakiletik kanpora atera daiteke irristatuta. Ur-oinarriko lubrifikatzaileak erabili (olio-oinarrikoak baliatu beharrean). Olioak preserbatiboaren latexa hondatu dezake, porotsu eta hauskor bihurtzen duelarik.

2. Kondoiak ezin dira birritan erabili. Erabili beste kondoi bat baginako, ahoko eta/edo uzkiako koitozko jardun sexualak dituzun bakoitzean. Halaber, beste kondoi bat erabiltzea beharrezkoa da jardun batetik bestera igarotzen zarenean (esaterako, uzkiako sexutik baginako sexura).

3. Ez kezkatu zakilak tente egoteari uzten badio kondoi bat erabiltzen ari zarenean. Hau gertatuz gero, kondoa aldatu beharko duzu. Kendu kondoa eta, zakila berriz ere tente dagoenean, jarri beste kondoi bat.

4. Ez da komenigarria aldi berean bi kondoi erabiltzea; izan ere, bien arteko igurtzia-ekin errazago hautsi daitezke.

5. Praktikarekin, konfiantza handiagoa izanen duzu preserbatiboak erabiltzerakoan. Preserbatiboen neurri, forma eta marka desberdinak probatzen ahal dituzu (baita, esaterako, kolore eta zapoak ere); lubrifikatzaile desberdinak ere bai, zuretzat egokiena zein den ikusteko.